



## **AMEZKETAKO “7HIE JAUREGI” PLAN PARTZIALAREN IRISMEN DOKUMENTUA.**

### **AURREKARIAK**

2024ko urtarrilaren 2an bidalitako idazkiaren bidez, Amezketako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiari eskatzen dio has dezala 7HIE Jauregi plan partzialaren ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura — Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikulutik 28. artikulura bitartekoetan arautua—, eta, horretarako, hasierako dokumentu estrategikoa eta hari lotutako kartografia bidaltzen dizkio.

Amezketako 7HIE Jauregi plan partzialak ezartzen du etorkizunean bizitegi zona baten urbanizazio proiektua baimentzeko esparrua, irizpideak eta baldintzatzaileak zehazten baititu antolamenduari, ezaugarriei, neurriei eta abarri dagokienez. Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.2.a) artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 20/2021 Legearen 76.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, urbanizazio proiektu horrek ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin beharko lukeenez, plan partzial horrek betetzen ditu ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko baldintzak, 21/2013 Legearen 6.1 artikulua eta 10/2021 Legearen 72.1 artikulua aplikatuz.

Horri dagokionez, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko 10/2021 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera, planak eta programak prestatzean ingurumen-alderdiak integratzeko, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak, ingurumen organo eskuduna den aldetik, irismen dokumentu bat egin behar du ingurumen azterketa estrategikoa izan behar duen zabaltasun, xehetasun eta zehaztasun maila mugatzeko, betiere ukituriko administrazioei eta herritar interesdunei kontsulta egin ondoren.

Beraz, 10/2021 Legearen 62. artikulua aplikatuz eta ekainaren 30eko 4/2023 Foru Dekretuan eta haren ondorengo aldaketan (6/2023 Foru Dekretua) ezarritakoarekin bat etorritz, zerbitzu teknikook proposatzen dute 7HIE Jauregi plan partzialaren irismen dokumentu hau egitea.

### **PLAN PARTZIALA ANTOLATZEKO HELBURU, IRIZPIDE ETA HAUTABIDE NAGUSIAK**

7HIE Jauregi eremuak 21.925 m<sup>2</sup>-ko azalera du, Amezketa udalerrriaren mendebaldean dago, eta, iparraldean, Amezketako hiri ehun finkatuari atxikirik dago. Eremuaren ipar-ekialdeko muturrean Jauregi baserria dago, eremuaren barruan dagoen eraikin bakarra, eta baratze bat du ondoan. 7HIE Jauregi osatzen duten gainerako lursail gehienak sega belardiak dira, eta nabarmentzekoa da lgartza errekaren ondoan dagoen ibaiertzeko landarez osaturiko zuhaitz formazioa.

Plan partzialaren xedea da Amezketako 7HIE Jauregi eremuari beharrezko antolamendu xehatua ematea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2006ko azaroaren 14an onetsitako Amezketako Arau Subsidiarioetan jasotako eremuko bizitegi erabilerak eta ekipamendu komunitarioa ezartzeko behar den hirigintza eraldaketarako jarduketa egikaritu ahal izateko. Xede hori justifikaturik dago udalerrian eta eskualdeko udalerrietan dagoen ohiko etxebizitzaren edo lehen bizilekuaren eskaerari erantzun beharrezkin, eta babes publikoko etxebizitzak barnean hartzen dituen etxebizitza eskaintza aurreikusten du.

Era berean, plan partzialaren helburua da indarrean dagoen 7HIE Jauregi eremuaren antolamendua egokitzea indarreko arau subsidiarioak onetsi zirenetik ingurumena babesteko izan den arau esparrura, bereziki honako alderdi hauei dagokienez:



- Eremuko uholde arriskuaren ondoriozko mugetara egokitzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak sustatutako "Amezketako saneamenduaren (Amezketak-Ugarte tarteak) eta Amezketatik Ugarterako oinezkoentzako bidearen proiektu eguneratua" egokitzea (2020ko uztailakoa).
- Antolamenduan irizpide bioklimatikoak eta energia efizientziakoak txertatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta zuzkidura bizitokiaren gutxiengo bizigarritasun baldintzak eta diseinu arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuak dioenari jarraituz.
- Lurzoruaren erabilera areagotzea, eta eremuko araudi partikularrean jasotako etxebizitza atxikien eskaintza murriztea.

Hauek dira planteatutako antolamendu hautabideak:

- *0 hautabidea.* Aukera horrek landa lurzoruan mantenduko luke 7HIE Jauregi eremua, hiri eraldaketarik gabe, lurzoru urbanizagarria izan arren. Beraz, ez dio erantzuten Amezketako Udalak egiaztatu duen ohiko etxebizitzaren eskaerari, eta, gainera, ezinezko bihurtuko luke plan partzialaren helburua.
- *1. hautabidea.* Bat dator arau subsidiarioetan jasotako eremuko araudi partikularreko hautabidearekin. Haren arabera, guztira 66 etxebizitza egitea aurreikusten da (48 eraikuntza irekiko bizitegi lurzatian eta beste 18 garapen txikiko eraikuntzarako bizitegi lurzatian). Guztira, 9.500 m<sup>2</sup>(t). 30 etxebizitzak babes araubideren bat dute. Etxebizitza atxikien zati bat 100 urteko itzulera denboran urak har dezakeen eremuan dago. Bestalde, 1.834 m<sup>2</sup>-ko lurzatian ekipamendu komunitarioa sortuko litzateke, 2.420 m<sup>2</sup>(t)-ko eraikuntza aprobetxamendurekin. Eremu barruko espazio libreak 3.954 m<sup>2</sup>-koak izango direla zenbatesten da.
- *2. hautabidea.* Aurreko aukerarekiko desberdintasun nagusia da bizitegi eraikina atzeratu egiten dela Amezketak ibaiarekiko, eta 100 urteko itzulera denborako uholdeen ondorioz urak har dezakeen eremuaren kanpoko mugan kokatzen dela. Horretaz gainera, areagotu egiten da lurzoruaren okupazioa, eta 78 etxebizitza berri antolatzen dira (66 bizitegi partzela irekian eta beste 12 garapen txikiko bizitegi partzelan). Etxebizitza kopurua 12 aldiz handitzea honela lortzen da: a.20 lurzati baten tokian (garapen txikiko partzela) a.10 lurzati bat hartzea (eraikuntza irekia), betiere hasieran aurreikusitako bizitegitarako hirigintza eraikigarritasuna errespetatuz. Etxebizitzaren gehikuntza hori babes publikoko etxebizitzaren alde egiten da (36 etxebizitza), eta araubide pribatuko etxebizitzak (adosatuak), berriz, murriztu egiten dira. Bestalde, lurgarria errekaren gaineko zubia ibaian gora eramaten da, 1. hautabidean baino kokapen zentratuago batera, bizitegi garapenari dagokionez. Era berean, mugaketa hego-mendebalderantz zabaltzen da eta urrunduz egiten da Amezketak ibaitik; hala, kanpoan uzten du GI-2133 errepidearen ondoan urbanizatutako eremua. Azkenik, espazio libreak gehitzen dira (9.459 m<sup>2</sup>), lurzoruaren erabilera areagotu egin delako eta atzeratzen egiten delako Amezketak ibaitik.

1. eta 2. hautabideak aztertu ondoren, hasierako dokumentu estrategikoak ondorioztatzen du lehenbizikoa ez dela bideragarria, lurzoruaren okupazio estentsiboari dagokionez, 100 urteko itzulera denborako uholdeen ondorioz urak har dezakeen eremu batean antolatzen baitira bizitegi eraikinak, eta hori ez dator bat urtarrilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuak onetsitako Plan Hidrologikoak (2022-2027) ezarritako arau esparruarekin. Bestalde, 2. hautabidea egokitzen da eremurako hirigintza araudi partikularrean zehaztutako, eta eremuaren ingurumen baldintzatzaileek baimendutako esparruan kokatzen dituzten bizitegi zonak eta ekipamendu komunitarioa, eta eutsi egiten dio aurreikusitako bizitegi eta ekipamendu eraikigarritasunari. Ez da aurreikusten inpaktu handirik hortik eratorrita.



Plan partzialak hirigintza antolamendua egikaritzeko araubide hau ezartzen du: hirigintza egikaritzea planifikatzeko hirigintzako jarduketa programa, birpartzelazio proiektua eta urbanizazio proiektua.

## **EGINDAKO KONTSULTAK**

Amezketako Udalaren eskaera jaso ondotik, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako eraginpeko administrazioei eta herritar interesdunei kontsultak egiteko izapidea egin du Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak. Fase horretan, erakunde eta instituzio hauei egin zitzaizkien kontsulta:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendiak eta Natura Inguruneak Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapenerako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasunerako eta Garraio Publikoak Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketarako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetarako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetarako Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Industriaren eta Energia Trantsizioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- IHOBE.
- EEE (Energiaren Euskal Erakundea).
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoko Ur Komisariotza.
- Gipuzkoako Ur Partzuergoa.
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- Goieki.
- Goimen.
- Aranzadi Zientzia Elkarteak.
- Eguzki talde ekologista.
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan talde ekologista.
- Landarlan Ingurumen Elkarteak.
- Haritzalde Naturzaleen Elkarteak.
- Itsas Enara Ornitologia Elkarteak.

Era berean, hasierako dokumentua eskuragarri egon da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen Administrazioak Zuzendaritzaren Interneteko atarian ([www.gipuzkoaingurumena.eus](http://www.gipuzkoaingurumena.eus)), herritar guztiek egokitzen jotako ingurumen arloko ekarpenak egin zitzaizkien.

Erantzunak bidaltzeko epea amaitu ondoren, hauek jaso dira:

- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak jakinarazi duenez, 7HIE Jauregi Nekazaritza eta Basogintzako lurralde plan sektoriala antolamendu-eremutik



kanpo dagoen arren, larre gisa definitutako nekazaritza erabilerak ditu Nekazaritza Lurzatiaren Informazio Geografikoko fitxan. Gaur egun nekazaritza lurzoruek eta jarduerak bizi duten egoera delikatuak dela eta, gomendagarria da plan partzalean aurreikusitako garapenak ukituriko larreei lotutako nekazaritza ustiatzearen inpaktuaren ebaluatzea, eta, hala, beharrezkotzat jotzen bada, dagozkion prebentzio, zuzenketa eta/edo konpentsazio neurriak hartu ahal izango dira.

- Uraren Euskal Agentziak (URA) jakinarazi du, alde batetik, helarazi zaiola kontsulta idazkia Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari, 21/2013 Legean ezarritakoaren arabera informatzea komeni dela uste badu ere. Hori gorabehera, URAk beste idazki bat bidali du, zeinean plan partzialari buruzko oharra aurkezten baititu, uren arloan dituen eskumen espezifikoak jarraikiz. Jakinarazi du ezen, 100 urteko itzulera denborako uholdeen ondorioz urak har dezakeen eremuan, hirigintza garapenerako proposamenak ez direla bateragarriak 2022-2027 Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren araudian xedatutakoarekin (38. eta 42. artikulua), eta, 100 eta 500 urte bitarteko itzulera denboran urpean gera daitekeen eremuan aurreikusitako garapenen kasuan, aipatutako Plan Hidrologikoaren 43 g) artikuluan xedatutakoa beteko da. Plan partzialaren esparruan egindako azterketa hidraulikoari dagokionez, jakinarazi du URAk baliozkotu beharko duela. Halaber, jarduketek Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoaren baimena izan beharko dute nahitaez.

Plan partzalean proposatutako garapenetatik datozen eskaerak bermatzeko ur baliabideei dagokienez, erakunde kudeatzaileak hornidura eta saneamendu azpiegituren nahikotasunari buruz egindako txostena jaso beharko da, eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eman beharko du erabakia, Uren Legearen testu bateginaren 25.4 artikuluan xedatutakoaren arabera. Bestalde, hirigintza garapen berriek ahalik eta gehien murriztu beharko dute okupazio iragazgaitza behar-beharrezkoak diren azaleretan, eta urbanizazio eta eraikuntza proiektuetan neurri zehatzak sartu beharko dira lur mugimenduetan edo ustekabeko isurketetan arrastatzeak eragindako kutsadura saihesteko, bai eta ibaiertzeko landaredia lehengoratzeko ere. Azkenik, URAk adierazi du eremua ezingo dela garatu harik eta hondakin uren tratamendu egokia bermatu arte.

- IHOBEK jakinarazi du planak eragindako okupazioak lurzoria artifizializatzea eragingo duela, une honetan eremua egoera naturalean baitago. Ondorioz, hiriko bero uhartearen efektua eragin dezake, baina ez da aurreikusten ildo horretan afekzio izango duenik, kontuan hartuta esku hartzearen eremuaren ezaugarriak, aurreikusitako espazio libre berdeak eta garapenaren inguruan dagoen landa eremu berdea. Era berean, lurzoria okupatzeak eragindako inpaktuak adierazten du, obren fasean zein ustiapen fasean, bai eta landaredia kentzeagatik ere —nahiz eta ez jo oso garrantzitsutzat—. Izan ere, irizten da inpaktu hori berreskuragarria eta txikia dela, ukitu daitekeen landarediaren ezaugarriak eta obra fasean prebentzio neurriak txertatzeko aukera kontuan hartuta. Bestalde, ez dago lurzatiari jasota *Lurzoria kutsa dezaketean jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo oraindik ere badituzten lurzoruen Inbentarioan*, baina, nolana ere, betetzekoak izango dira lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legean ezarritako betebeharrak, baldin eta eremuak lurzoria kutsa dezakeen jardura bat badu —edo izan badu— edo kutsadura zantzuak antzematen badira. Era berean, arreta berezia jarri beharko da obrak egiten diren bitartean lurzoria ez kutsatzeko. Bestalde, iradokitzen da klima aldaketaren ikuspegia txertatzea planaren dokumentazioan, eta, hala, antolamendu irizpideen eta klima aldaketaren arteko lotura indartzea.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak txosten tekniko bat egin du antolamenduaren eremuan dauden babes zibileko arrisku garrantzitsuenei buruz. Horien artean, Amezketa ibaiaren ibilguari lotutako uholde arriskuei buruzko informazioa ematen da, eta aipatzen da 10 urteko itzulera denborako uholde orbanaren eraginpean dagoela aztertutako eremuaren ipar-ekialdeko eremu txiki bat, lurzati eraikigarri gisa erabiltzen ez dena. Gogoratzen du uholde arriskua handitzea



saihestu beharko dela, instalazioek 500 urteko itzulera denborako uholde arriskuko kostatik gorako kotetan kokatu beharko dutela eta administrazio hidraulikoaren nahitazko baimenean jasotako baldintzak bete beharko direla. Bestalde, jakinarazten da azterketa eremuan 250 mm/egun eta 300 mm/egun artean daudela 500 urteko itzulera denborarako, eta hori kontuan hartu beharko dela saneamendu eta/edo isurketa obretatik erator daitezkeen drainatze obrak diseinatzeko. Arrisku sismikoari dagokionez, Amezketak VI. intentsitate eremuan dago, eta, beraz, ez du egin behar larrialdi sismikoaren planik. Baso suteen arriskuari dagokionez, hirigintza plangintzan kontuan hartu beharko dira EAEko baso suteen arriskuagatik larrialdietarako babes zibila planifikatzeko oinarritzko gidalerroan jasotako mugak eta baldintzatzaileak, bai eta baso suteen arriskuagatik larrialdi plan berezia ere. Azkenik, jakinarazi da Amezketan ez dela arriskurik hauteman salgai arriskutsuak garraiatzeagatik eta Seveso III Araudiarekin loturik.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzak jakinarazi du Jauregi baserria A motako ustezko zona arkeologikoa dela, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 1997ko irailaren 17ko Ebazpenaren arabera. Beraz, eremu horretako esku hartzei dagokionez, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 65. artikuluan jasotakoa bete beharko da. Era berean, Jauregi Haundi baserria *interes bereziko eraikin* gisa sailkatuta dago, eta, Amezketako arau subsidiarioen Kultura Ondarearen Katalogoaren arabera, *kontserbazio maila zorrotza* du.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak adierazi duenez, gaur egun, Igartza errekarari lotutako ibaiertzeko zerrenda txikia da 7HIE Jauregi eremuan ingurumenaren ikuspegitik elementu garrantzitsuena. Egokitzen jotzen da eremuan ingurumena eta paisaia lehengoratzeko hasierako dokumentu estrategikoak aurreratutako neurria, ibaiertzeko landaredia lehengoratzea barnean hartuta —handitu eta indartu egin beharko litzateke, eta, horretarako, bertako zuhaitz eta zuhaixka espezieak landatu—. Hala ere, nahiz eta proposamenaren ingurumen integrazioari handiena bermatzeko idatziko den ingurumen azterketa estrategikoan garatu beharko da hori. Neurri hori diseinatzeko erreferentzia egokia da *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua*, IHOBek argitaratua.

Irismen dokumentu hau egin ondoren erantzunen bat jasotzen bada, ahalik eta lasterren bidaliko zaio Amezketako Udalari, kontuan har dezan lan partziala eta ingurumen azterketa estrategikoa egiterakoan.

## **INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOAK, JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK ETA ARAU ITURRIAK**

Plan partzialak ingurumen helburu eta irizpideak onetsi, txertatu eta aplikatu beharko ditu, planeko jarduerak eta zehaztapenak jasangarriak izango direla eta ingurumen ondorio kaltegarri nabarmenik sortuko ez dutela bermatzeko.

A. Plan partzialak bere gain hartzen dituen ingurumen helburu estrategikoek ingurumen helburu eta irizpide hauetan oinarrituta egon behar dute, gutxienez:

- Ingurumen kalteen prebentzioa lehenestea, zuzentzearen eta konpentsatzearen aurretik, planaren formulazioan ingurumen alderdiak behar bezala kontuan hartuta, eta, horretaz gainera, ingurumena hobetzeko proiektuak eta jarduerak proposatzea eta bertan sartzea.
- Lurzoruaren erabilera esleitzerakoan, kontuan hartzea baliabide naturalen kalitatea eta kalteberatasuna, eta aintzat hartzea, orobat, ingurumen kalitatea, klima aldaketa eta aurreikusitako erabilerei dagokionez eremuek duten harrera gaitasuna.
- Lurzoruaren kontsumoa ahalik eta gehien murriztea, batez ere urbanizatu gabeko lurzoruarena.



- Afekzioak saihestea eremuko biodibertsitate elementu berezietan, hala nola landaredi autoktonoan, eta natura ondarearen egoera orokorra eta ingurumen zerbitzuak emateko gaitasuna mantentzea edo hobetzea.
  - Paisaiaren eta kultura ondarearen babesa txertatzea, eremuaren antolamendua definitzerakoan kontuan hartu beharreko faktoreen artean.
  - Inpaktu negatiboa murriztea baliabideen (ura, energia eta materialak), hondakinen eta kutsatzaileen balantzean, bai eraikuntzak eragindakoak oro har (eraikinak, egiturak, urbanizazioa), bai haien funtzionamenduak eragindakoak, eta zikloak ixtera bideratzea.
  - Jasangarritasun energetikotik eratorritako betekizunak txertatzea eremuaren antolamenduan, eta, horretarako, iturri berriztagarrietan oinarritutako energia hornidurarako instalazio deszentralizatuak ezartzeko erraztasunak ematea eta energia efizientzia pasiboko baldintza ezin hobeak erraztuko dituen antolamendua ezartzea.
  - Ur baliabideak eta ingurunea —lurpeko edo gainazaleko ur kontinentalak— babestea, zaintzea eta lehengoratzea, eta, hala, Uren Esparru Zuzentaruaren helburuak lortzen saiatzea. Ildo horretan, errespetatzekoak izango dira uren arloko araudiak ezarritako atzerapenak eta zortasunak, eta egungo eta etorkizuneko isurketen tratamendu egokia bermatuko da.
- B. Bestalde arau eta dokumentu hauetan jasotako jasangarritasun irizpideak eta printzipioak hartuko dira kontuan:
- Nazio Batuen 2030 Agenda.
  - Europar Batasunaren ingurumenaren arloko VIII. Ekintza Programa Orokorra (2030era artekoa).
  - Europako Itun Berdea.
  - Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Ingurumen Esparru Programa.
  - 2030erako Euskadiko Biodibertsitate Estrategia.
  - Euskal Autonomia Erkidegoko 2050erako Klima Aldaketaren Estrategia.
  - Euskadiko Ekonomia Zirkularreko Estrategia 2030.
  - Bultzatu 2050 Hiri Agenda.
  - Gipuzkoako Energia Jasangarritasunaren 2050erako Estrategia.
  - Euskadiko 2030erako Energia Estrategia.
  - 2050erako Klima Aldaketaren aurkako Gipuzkoako Estrategia.
  - Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. eta 20. artikulua.
  - Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 3. artikulua.
  - Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen 2. artikulua.
  - Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 2. artikulua eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 3. artikulua.
  - Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 3. artikulua.
  - Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 6. artikulua.



- Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 1. eta 2. artikulua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 5. eta 6. artikulua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 2. artikulua.

C. Azkenik, hauek dira irismen dokumentu hau eta plan partziala egiteko aintzat hartu behar diren ingurumen arau nagusiak:

### **Europako araudia**

- Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturala eta basa fauna eta flora babesteari buruzkoa.
- 2000/60/EE Zuzentaraua, ur-politikaren esparruan Erkidegoko esparrua ezartzen duena.
- 2002/49/EE Zuzentaraua, zaratari buruzkoa.

### **Estatukoa**

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa.
- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duena.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatzeko akustikoari, kalitate-helburuei eta soinu-igorpenei dagokienez.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 35/2023 Errege Dekretua, Kantauriko Mugape Hidrografikoaren 2022-2027 aldirako Plan Hidrologikoa onesten duena.
- 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

### **Euskal Autonomia Erkidegokoa**

- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa.
- 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduen Gidalerroak.
- 64/2020 Dekretua, maiatzaren 19koa, Tolosako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatik Plan behin betiko onesten duena.
- 415/1998 Dekretua, abenduaren 22koa, Kantauri isurialdeko EAEko ibai eta erreken ertzak antolatzeko lurralde-plan sektoriala behin betiko onesten duena, eta 449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko lurralde-plan sektorialaren aldaketa behin betiko onesten duena.
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.



- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzekoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun energetikoari buruzkoa.

### **7HIE JAUREGI EREMUAREN ANTOLAMENDUAN KONTUAN HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK.**

Hasierako dokumentu estrategikoan emandako informazioa eta beste administrazio batzuetatik jasotako erantzunak aztertu ondoren, irizten da arreta berezia jarri behar zaiela ingurumen alderdi hauei plan partzialaren formulazioan:

- A. Zuhaitz masa autoktonoak eta Batasunaren intereseko habitatak.** Eremuaren zatirik handiena Batasunaren intereseko 6510 habitatak hartzen du (*Altitude baxuko sega-belardi elkorrak*). Habitat hori oso banatuta dago isurialde kantauriarrean, eta, beraz, ez dago desagertzeko arriskuan. Halaber, Igartza erreka erriberako landaredia nabarmendu daiteke. Errenkada bakar batek osatzen du, eta haltzak (*Alnus glutinosa*) dira nagusi, aldi-aldi sahasak (*Salix sp*) eta lizarrak (*Fraxinus excelsior*) dituela, baita iratzez, huntzez eta sasiz osatutako belar eta zuhaixka geruza bat ere. Guztira, hasierako dokumentu estrategikoaren kalkuluen arabera, erriberako landaredi orban horrek 1.435 m<sup>2</sup> hartzen ditu; hau da, eremuaren azalera osoaren % 7, gutxi gorabehera. Bigarren antolamendu hautabideak erriberako landaredi horri eragiten dio unean-unean, bizitegitarako lurzatiak lotzen dituen zubi berri bat eraikitzea aurreikusten baitu. Nolanahi ere, ingurumen azterketa estrategikoak planteatzen dituen neurri babesle eta zuzentzaileen artean, eremua lehengoratzeko plan bat idatzi beharko litzateke, Igartza erreka erretzetan gaur egun dagoen ibaiertzeko landaredia areagotzeko eta indartzeko, bai eta espezie autoktonoekin landareztatze ere eremurako diseinatzen diren gainerako espazio libreak.
- B. Jabari publiko hidraulikoa eta haren babes eremuak.** 7HIE Jauregi eremua Amezketan ibaiaren ezkerrean dago, eta Igartza erreka zeharkatzen du —erreka horrek, Amezketan ibaira isurtzen ditu urak, eremuan behera joanda—. Ondorioz, sektore osoa —eraikinak eta eremu urbanizatuak barne— jabari publiko hidraulikoaren zaintza eremuaren barruan dago, eta, beraz, garatzen diren jarduketak guztiek Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren baimena izan beharko dute nahitaez. Gainera, Amezketan II ur-masa Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren 2022-2027 aldirako Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroan sartuta dago, *hornidura-ura hartzeko zona gisa*. Aurrekoa ikusita, plan partzialean azkenean hartuko den antolamenduak bateragarria izan beharko du EAEko Ibaien eta Erreken Ertzetako Lurralde Plan Sektorialean ezarritako atzeratzeekin. Proposatzen den zubi berriari dagokionez, kontuan hartu beharko da, kasuak hala eskatzen badu, Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren araudiaren 47. artikulua (zubiak, estaldurak eta defentsarako neurri estrukturalak diseinatze eta ibilguen trazadura aldatzeko berariazko arauari buruzkoa). Nolanahi ere, ingurumen azterketa estrategikoak jabari publiko hidraulikoan proposatutako jarduketan ondoriozko afekzioen azterketa egokia jaso beharko du, eta, aldi berean, neurri babesle, zuzentzaile





eta, kasuaren arabera, konpentsatzaileen multzo oso bat definitu beharko du, inpaktu horiek ahalik eta txikiak izango direla bermatzeko. Plan partzialaren araudi orokorrean edo partikularrean sartu beharko dira neurri horiek, jarduketan garapenean betetzen direla bermatzeko.

- C. Uholde arriskua.** Amezketa ibaiaren eta lgartza erreken artean kokatzearen ondorioz, aztertutako eremua bat dator, partzialki, Amezketa uholde arrisku potentzial esanguratsuko eremuarekin (kodea: ES017-GIP-1-1), eta III. taldean sartzen da.

Eremuaren zati bat, uholde arriskuaren kartografiaren arabera, urpean gera daiteke 100 eta 500 urteko itzulera denborei dagozkien Amezketa ibaiaren uholdeen ondorioz, nahiz eta eremua lehentasunezko fluxu eremutik kanpo egon. Proposatutako eraikinen gaineko afekzioa aztertuz gero, egiaztatzen da batzuk 100 urteko itzulera denborako uholdeen ondorioz urak har dezakeen eremuan kokatuko lirakeela, eta, beraz, Plan Hidrologikoaren araudian xedatutakoa betez (38. eta 42. artikulua), ez lirake baimenduko proposatutako erabilerak. 100 eta 500 urte arteko itzulera denborako uholdeen ondorioz urpean gera daitekeen eremuko eraikinen kasuan, beharrezkoa izango da Plan Hidrologikoaren 43 g) artikuluan ezarritako baldintzak betetzea.

Bestalde, hasierako dokumentu estrategikoan azaltzen denez, eremuaren egungo uholde arriskuaren azterketa espezifikoa egin da plan partzialaren esparruan. Alabaina, haren plano bat baino ez da bidali, eta, URAk kontsultei emandako erantzunean jakinarazi duenez, erakunde horrek baliozkotzeko zain dago. Ondorioz, egungo egoeran uholde arriskua txikiagoa dela dioen arren, horren emaitzak ezin dira kontuan hartu Plan Hidrologikoaren araudian uholde arriskuetatik babesteko ezarritako baldintzak aplikatzeko.

Azkenik, Plan Hidrologikoaren 48.1 artikulua betez, hirigintza garapen berriek zoladuraren eta okupazio iragazgaitzaren zenbatekoa behar-beharrezkoa den azaleretara gutxitu beharko dute, eta drainatze jasangarriko hiri sistemak sartu beharko dituzte. Alde horretatik, ingurumen dokumentuak eta plan partzialak aintzakotzat hartu beharko dute neurri horiek hartzea, eta, zehazki, eremu komunak eta aparkalekuak iragazkortzea.

- D. Nekazaritza intereseko lurzoruak.** 7HIE Jauregi eremuko lurzoruak Nekazaritza eta Basogintzako lurralde plan sektorialaren antolamendu eremutik kanpo dauden arren, larre gisa definitutako nekazaritza erabilerak ditu Nekazaritzako Lurzatiaren Informazio Geografikoko Sistemaren arabera. Nekazaritza ustiatzietarako eskuragarri dagoen nekazaritza lurra pixkanaka murrizten ari denez, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak kontsultei emaniko erantzunetan proposatutakoarekin bat etorritik, komenigarria litzateke aztertzea ea badagoen funtzionamenduan garapenak ukituko dituen larreak erabiltzen dituen ustiatzietatik, eta, kasu horretan, dagozkion prebentzio, zuzenketa eta/edo konpentsazio neurriak hartu beharko lirake.

- E. Paisaiaren kalitatea.** Eremua Amezketa ikus arroaren parte da —EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoaren Katalogoan sarturik dago—, eta oso altutzat jotzen da haren berezko balioa. Eremuan planteatzen diren eraikinen inpaktu bisuala murrizten saiatu beharko da, eta, ildo horretan, paisaia integrazioarako irizpideak eta baldintzak txertatuko dira eremuko arau berezietan. Arau horiek hurrengo atalean ezartzen direnekin koordinatuko dira, Jauregi baserriaren gaineko kutsadura bisuala saihesteko.

- F. Kultura ondarea.** Jauregi baserria *Ustezko Zona Arkeologiko* izendatu zuen Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 1997ko irailaren 17ko Erabakiak (zeinaren bidez argitaratzen baitira Gipuzkoako Lurralde Historikoko zenbait udalerritako ustezko zona arkeologikoen deklarazioa egiten duten 1997ko irailaren 11ko erabakiak) Era berean, indarrean dauden Arau Subsidiarioen Kultura Ondarearen Katalogoan, kontserbazio zorrotzeko interes bereziko elementu eta eraikinen artean sartzen da. Hasiera batean, plan partzialak ez dirudi eraikin horretan jarduketarik egitea planteatzen duenik, eta, beraz, ez da espero zuzeneko inpaktu garrantzitsurik, hura babestea eragin duten balioei eragin diezaiekeenik. Hala ere, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 50.



artikulua betez, aztertu beharko litzateke antolamendu hautabideetan proposatzen diren eraikin berriek babestutako ondasun horretan sor dezaketen kutsadura bisuala ere, eta dagozkion prebentzio eta zuzenketa neurriak diseinatu.

## **INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA**

Amezketako Udalak egin behar duen ingurumen azterketa estrategikoa plan partzialeko agirien parte izango da, eta han identifikatu, deskribatu eta ebaluatuko dira plana aplikatzeak ingurumenean izan ditzakeen eragin nabarmenak eta teknikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren arrazoizko aukerak, guztia ere plana aplikatzeak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko edo ahalik eta gehien murrizteko, eta, ildo horretan, ingurumenean eta jasangarritasunean ekintza positiboak planteatzeko.

Ingurumen azterketa estrategikoak, gutxienez, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako edukia izango du, bai eta planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinak ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenetarako ezartzen duen edukia ere.

Ebaluatuko den eremu geografikoak nahikoa izan beharko du planean aurreikusitako jarduketek eragindako afekzio guztiak kontuan hartzeko. Oro har, 7HIE Jauregi eremua hartuko du, nahiz eta zenbait alderdik eska dezaketen eremu hori gairitzen duen lurralde baten gaineko eraginak aztertzea, esate baterako, paisaiaren gaineko afekzioak, uholde arriskuak edo lurrazaleko uren kutsadura aztertzean.

Eranskin horietan definitutako atalak garatzean, txosten honetan adierazi diren alderdiak landu beharko dira, bai eta administrazioek, erakundeek eta alegazioetan interesa duen jendeak arazotsutat hartu dituzten ingurumen gaiak eta ondoren aipatzen direnak ere:

### **1. Plan partzialaren edukiaren eta helburu nagusien laburpena, eta beste plan eta programa batzuekin duen lotura.**

Ingurumen azterketa estrategikoak plan partzialaren edukiaren laburpen bat aurkeztu behar du (edo hartara jo); bertan, aurrekariak, helburuak, jarduerak eta aurreikusitako zehaztapenak deskribatuko dira, aintzat hartutako gainerako aukerekin batera. Halaber, jarduketan denbora plangintza deskribatuko du, eta, kasuak hala eskatzen duenean, baita aurreikusten diren garapen tresnak ere.

Era berean, aztertzeak izango dira plan partzialak hirigintza antolamenduko beste tresna batzuekin eta harekin lotura izan dezaketen lurralde eta sektore planekin dituen harremanak ere. Gutxienez, alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Tolosako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- EAEko ibaiertzak eta errekaertzak antolatzeako Lurralde Plan Sektoriala (Kantauri isurialdea) eta haren 1. aldaketa.
- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren 2022-2027 aldirako Plan Hidrologikoa.
- Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2022-2027).
- EAEko eta Gipuzkoako Klima Aldaketaren aurkako Borroka Estrategiak.
- Energiari buruzko Gipuzkoako Foru Plana eta Euskadiko 2030erako Energia Estrategia.

Plan partzialaren helburuen eta jardueren eta eremuan eragina duten plan eta programen helburu eta zehaztapenen arteko koherentzia eta erlazioa zehaztuko dira. Horren xedea izango da helburu komunak lor daitezen sustatzea eta planteatutako jarduketa aukerak



ebaluatzea, gainerako plan eta programen helburuekin eta jarduera ildoekin gainjartzeak, gatazkak edo bateraezintasunak ager daitezkeen kasuetan.

Era berean, afekzio eremuari aplikatu dakizkiokeen gainerako planekin izan daitezkeen albo ondorio metagarriak eta sinergikoak identifikatuko dira. Horrela identifikatutako ondorioak, kasuaren arabera, planaren inpaktuak identifikatzeko eta baloratzeko atalean ebaluatuko dira.

## 2. Nazioarteko, Europar Batasuneko, estatuko, autonomia erkidegoko, lurralde historikoko eta tokiko esparruetan ingurumena babesteko finkatutako helburuak, bai eta plana egiteko kontuan hartu den moduari buruzko justifikazioa ere.

Ingurumen ebaluazio estrategikoak azaldu beharko du nola txertatu diren udal antolamenduan irismen dokumentu honetan adierazitako ingurumena babesteko eta jasangarritasunerako irizpideak —edo plan partziala formulatzeko garaian ezarritako beste batzuk—, eta, ahal denean, ezarritako edo proposatutako adierazleak eta mugak erabiliko ditu.

## 3. Antolatutako eremuaren ingurumen ezaugarriak eta bilakaera, klima aldaketa kontuan hartuta.

Azterketak eremu antolatuaren eta haren ingurunearen ingurumen ezaugarrien deskribapena jaso behar du, eta, ildo horretan, egungo egoeraren eta etorkizuneari izan dezakeen bilakaeraren diagnostikoa egingo du, klima aldaketa kontuan hartuta. Horretarako, beharrezko azterketa espezifikoak egingo dira, eta adieraziko da zer informazio eta bibliografia iturri kontsultatu diren, zer landa lan gauzatu den eta zer metodologia baliatu diren.

Natura eta paisaia baliabideen egoera eta ingurumen kalitatea deskribatuko dira, eta bereziki identifikatuko dira babestu edo zaindu beharreko elementuak eta/edo baliabideak. Era berean, planean ezarritako antolamenduaren ondorioz nabarmen alda daitezkeen hiri metabolismoaren alderdi edo aldagaiei buruzko informazioa eman beharko da, hala nola uraren hornidura eta saneamendu sistemenak, mugikortasun sistema (garraio publikoa/pribatua, motorizatua/motorizatu gabea), zarata mailak, energia kontsumoa eta abar. Zehazki, eta indarrean dagoen legedia betez, azterlan hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premia neurri buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31.1 artikuluan horri buruz zehaztutakoa betez, **lurzoruek lege horretan jasotako aurreikuspenetarako duten harrera ahalmenaren azterketa egingo da**, eta kontuan hartuko dira, besteak beste, Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak eta URAk jabari publiko hidraulikoaren babesari buruz eta eskari berriei erantzuteko beharrezko baliabide hidrikoen existentziari buruz hartzen dituzten erabakiak, bai eta hornidura eta saneamendu azpiegiturak kudeatzen dituen erakundearen adostasun txostena ere, adierazten duena azpiegitura horiek nahikoak direla garapenaren hornidura eta saneamendua bermatzeko. Ildo horretan, kontuan hartuko da eremua ezingo dela garatu harik eta hondakin uren tratamendu egokia bermatu arte. Era berean, kontuan hartuko dira errepideen eta lehendik dauden beste azpiegitura batzuen arloan eskumena duten administrazioek egindako txostenak, planean jasotako aurreikuspenek izan dezaketen afekzioari buruzkoak.
- **Inpaktu akustikoari buruzko azterlan bat**, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37. artikulua eskatzen duen bezala.

Atal horrek kartografia tematiko egokia izan beharko du oinarri, azkenean barnean hartzen dituen alderdi guztien inguruan.



#### **4. Aukerak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitua. Hartutako soluzioaren justifikazioa.**

Ingurumen azterketa estrategikoak plan partzialarekin lortu nahi diren helburuei erantzuteko teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren hainbat hautabideren ingurumen azterketa jaso behar du. Aintzat hartutako aukera bakoitzaren ingurumen inpaktua ebaluatuko da, eta planaren helburuei —eta, bereziki, ingurumen helburuei— zenbateraino erantzuten dieten zehaztuko da.

Horretarako, azterketaren eremuko ingurumen elementu eta arazo garrantzitsuak eta ingurumena babesteko helburuak identifikatu ondotik, plana garatzeko eta haren helburuak betetzeko zenbait aukera proposatu beharko dira, bideragarriak direnak teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenari dagokionez. Ondoren, hartutako soluzioa justifikatuko da, kontuan hartutako irizpideen arabera, ingurumen irizpideak barne.

Ildo horretan, antolamendu hautabidetzat hartu beharko dira, plan partzialaren helburuei erantzunez, oraindik eraldatu ez den lurzoruaren artifizializazioa ahalik eta gehien murrizten dutenak eta eremuan kokatu nahi diren bizitegi erabileretarako uholde arriskuak murrizten dituztenak.

Egindako aukeren azterketak azaldu beharko du zer metodologia erabili den eta zer neurritan hartu diren kontuan ingurumen faktoreak, faktore tekniko funtzionalak eta ekonomikoak, garatu beharreko irizpide anitzeko azterketa horretan. Balioetsitako alderdi bakoitzean azkenean eginiko aukera ez badator bat ingurumen baloraziorik onenarekin, hautaketa egiteko erabilitako arrazoiak azaldu beharko dira.

Dokumentazio kartografikoa erantsiko da, proposatutako aukeren ezaugarriekin.

#### **5. Plan partzialaren zehaztapenek eta jarduketek ingurumenean dituzten ondorio adierazgarriak identifikatzea eta balioestea.**

Plan partzialean aurreikusitako jarduketek inguruneke elementuetan izango duten inpaktua identifikatuko eta balioetsiko da, eta, besteak beste, elementu hauek:

- Intereseko habitatak.
- Jarduketa eremuan dauden larreei lotutako nekazaritza ustiategiak.
- Lurzoruaren artifizializazioa.
- Ur masak eta ur araudiaren arabera babestutako eremuak.
- Arrisku naturalak (uholde arriskua).
- Paisaia.
- Hiri ingurunearen kalitatea, zaratari, zirkulazioari eta halako alderdiei dagokienez.
- Ondare monumentala eta arkeologikoa.
- Era berean, kalkulatu beharko da zer neurritan eragingo duen plan partzialean planteatutakoak mugikortasun eskaeran, baliabideen kontsumoan (ura eta energia, kasu), kutsatzaileen emisioan (hondakin urak, esaterako) eta hondakinen sorreran.

Aztertutako inpaktuek barnean hartu behar dituzte albo ondorioak, metatze ondorioak, sinergia ondorioak, iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak, bai eta epe labur, ertain eta luzekoak ere.

Identifikazioa eta balorazioa ez dira mugatuko antolatutako eremuaren eraldaketa fisikoak eragindako zuzeneko inpaktuetara (adibidez, bizitegi eraikin berriak ezartzeak lurzoru artifizializatzea); aitzitik, proposatutako antolamenduak edo erabilera eta jardueren erregulazioak eragindako zeharkako ingurumen inpaktuak jaso beharko ditu (adibidez, hondakin urak ugaritzea bizitegi erabilera berrien ondorioz).



Hautemandako inpaktuen garrantzia zehazteko, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen III. eranskinean eta II. eranskinean ezarritakoa betetzen saiatu beharko da. 21/2013 Legea, Ingurumen Administrazioari buruzkoa.

Identifikatutako inpaktu bakoitza magnitudearen eta intentsitatearen arabera karakterizatu eta baloratu beharko da, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinaren 8. apartatuan adierazitako terminologiaren arabera. Horretarako, aldez aurretik definitutako dira inpaktu adierazleak (adierazgarriak, garrantzitsuak, baztertzailak, zenbatesgarriak eta erraz identifikatzeko modukoak), afekzioa behar bezala deskribatuko dutenak, bai eta ingurumen kalitatearen helburuak ere, inpaktuari dagokionez onargarriak diren gutxieneko mugak finkatzeko, eta erreferentzia gisa hartuko dira kasu bakoitzean indarrean den legeria eta organo eskudunen jarraibideak.

Azkenik, inpaktuen ebaluazioa prozesuaren ondorengo beste faseetara atzeratzeko alderdiak arrazoituko dira, egokiagotzat jotzen baita.

## 6. Ingurumenaren alorreko prebentzio, zuzenketa eta integrazio neurriak

Ingurumen azterketa estrategikoak zenbait neurri zehaztuko ditu, plan partzialean aurreikusitako jarduketengatik ingurumenean garrantzitsutzat jo diren inpaktu guztiak prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den neurrian, indargabetzeko.

Era berean, ingurumen alderdiok eremuaren antolamenduan sartzeari dagokionez, ez litzateke mugatu behar balizko inpaktu bati erantzuteko neurriak ezartzera; izan ere, komenigarria da neurri horiek ingurumen arazoak zuzentzen eta antolatutako eremuan ingurumen kalitate handiagoa lortzen lagunduko duten beste batzuekin osatzea.

Hartara, tankera honetako neurrien bidez egin behar da 7HIE Jauregi eremuaren ingurumen integrazioa:

- Plangintzan ingurumen- alderdiak kontuan hartzea, eta baliabide hauskor edo baliotsuenen gaineko afekzioa murriztea, hala nola ibaiertzeko landarediaren, lurrazaleko uren ibilguten eta abarren gainekoa, eremurako idazten diren antolamendu arauen bidez.
- Eraikuntza eta eraispen hondakinak kudeatzeko azterlanak idaztea, plan partzialeko jarduketak egikaritzeko proiektuetarako. Hondakin horiek kudeatzeko, kontuan hartuko da, batetik, Ekonomia zirkularerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean aurreikusitako, eta, bestetik, eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen uztailaren 26ko 112/2012 Dekretuak dioena. Teknikoki eta ekonomikoki bideragarria bada, hondakin tipologia bakoitza behar bezala baimendutako kudeatzailearen bidez balioztatuko beharko da. Obrako soberako materialak sortzen badira, 2018/851/EB Zuzentarauaren definizioaren arabera balorizazio eragiketatzat har daitezkeen betelanez bideratuko dira lehentasunez.
- Ingurumena eta paisaia lehengoratzeko proiektu bat idaztea. Proiektu horretan, eraiki gabeko espazioak landareztatze jarduketak jasoko dira eta horiek egikaritzeko erantzukizunak zehaztuko dira, bai lurzati pribatuetarako, bai espazio komunitarioetarako. Era berean, horretarako behar den aurrekontua ere zehaztuko da. Proiektu horri esker, lgartza errekarari lotutako ibaiertzeko landaredia areagotu eta sendotu ahal izango da. Diseinurako erreferentzia gisa baliatu daitezkeen IHOBek argitaratutako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatze eskuliburua (Udalsarea 21)*.
- Urbanizazio eta eraikuntza proiektuetan jasangarritasun irizpideak sartzeko. Plan partzialaren araudiak zehaztuko du zer neurri eta jardunbide egoki txertatu behar diren eraikuntza proiektuetan, bai eta urbanizazio proiektuan ere, bermatzeko egokitzen direla jasangarritasun irizpideetara eta klima aldaketaren ondorioetara egokitzeko eta



haiek arintzeko irizpideetara. Ildo horretan, plana garatzen duten eraikuntza eta urbanizazio proiektuek alderdi hauek lortzeko neurriak eta ingurumen jardunbide egokiak jasoko dituzte:

- Eraikuntzan eta eraikingintzan berriztagarriak ez diren lehengaien kontsumoa murriztea.
- Ura efizientziaz erabiltzea eta hondakin urak behar bezala kudeatzea, kolektore nagusira konektatuta.
- Lur mugimenduetan arrastatzeak edo ustekabeko isurketak eragindako lurrazaleko uren kutsadura minimizatzea.
- Jariatze urak handitzearen ondoriozko uholde arriskuak murriztea, eta ahalik eta gehien gutxitzea eremuan iragazgaitza den azaleraren ehunekoak, bai eta drainatze sistema jasangarriak txertatzea ere.
- Energia efizientzia eta autokontsumoa.
- Mugikortasun jasangarria, eta, ildo horretan, ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak ezartzea, bizikleten erabilera eta aparkalekua errazteko espazioak erreserbatzea eta garraio publikorako sarbidea erraztea.

Urbanizazio eta eraikuntza proiektuetan sartu beharreko neurriak eta jardunbide egokiak definitzeko, IHOBEn argitalpen hauetan deskribatutakoak hartu ahal izango dira kontuan:

- *Eraikuntza eta birgaitze jasangarriaren gida Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzetarako.*
- *Irtenebide naturalak Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan klima-aldaketara egokitzeko.*

## 7. Planaren ondorioak zaintzeko programa.

Ingurumen azterketa estrategikoak plan partzialak ingurumenean dituen ondorioak zaintzeko programa bat jaso behar du, identifikatutako inpaktu esanguratsu bakoitzaren jarraipena egin ahal izateko, neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak bete ahal izateko eta, oro har, neurri horiek eraginkorrak izan daitezen, bai eta plan partzian zehaztutako ingurumen helburuak lortu ahal izateko ere.

Horretarako, programak alderdi hauei buruzko informazioa jaso behar du aldian-aldian:

- Zenbateraino bete diren proposatutako ingurumen helburuak.
- Abian jartzearen ondoriozko ingurumen ondorio negatiboen garrantzia.
- Neurri prebentibo, zuzentzaile eta, kasuak hala eskatzen badu, konpentsatzaileen aplikazioa eta eraginkortasuna, barnean harturik neurri horiek plana garatzeko ondoko ondoko dokumentuetan eta gauzatze proiektuetan sartzeko aukera.
- Agertu diren ingurunekeko elementuetan aurreikusi ez diren ingurumen ondorio kaltegarriak identifikatzea.
- Sektorean eskumena duten erakundeek edo administrazioek (urak, hondakinak, zarata, errepideak, jarduera sailkatuak eta bestelakoak zuzentzen dituzten erakundeek) eta udal baimenetan ezarritako ingurumen baldintzak betetzea.

Horretarako, gainbegiratze programak alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Jarraipena egin behar zaien ingurumen sistemak, alderdiak edo aldagaiak identifikatzea.
- Egin beharreko jarraipen eta kontrol jarduerak, metodologiarekin (datuak hartzeko estrategiak, aldizkakotasuna, eta abar) eta dagokion kronogramarekin.



- Erabili beharreko jarraipen adierazleak, dagozkien unitate eta muga eta/edo erreferentzia mailekin.
- Ingurumen jarraipenaz arduratzen diren pertsonak eta/edo erakundeak.
- Egin beharreko txostenen edukia eta aldizkakotasuna.
- Aurreikusitako aurrekontua.

## 8. Laburpen ez-teknikoa

Ingurumen azterketa estrategikoan emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat idatzi beharko da, informazio zehatzarekin eta jende guztiarentzat eskuragarri.

Laburpen horretan, gutxienez, alderdi hauek jasoko dira: plan partzialaren bidez lortu nahi diren helburu orokorrak eta ingurumen helburuak, kontuan hartutako aukerak, horietako bakoitzak ingurumenean dituen ondorioen laburpena, eta azkenean aukeratutako soluzioaren alde egin izanaren arrazoiak.

Laburpena osatzeko, diseinatutako neurri zuzentzaileak eta parte hartze publiko eta administratiboko prozesuaren ondorioak deskribatuko dira.

Era berean, alderdi aipagarrien dokumentazio grafikoa erantsiko da.

## 9. Aukeren eta neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileen bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena.

Aukeren azterketari gutxi gorabeherako azterketa ekonomiko bat gehituko zaio, kostu-irabazien analisia eta analisi ekonomiko-finantzarioa kontuan hartuta, eta, ahal den neurrian, barnean hartuko du ingurumen eta gizarte alorretako kanpo kostuen azterketa ere.

Atal horretan sartuko da, orobat, plan partzialaren aplikazioak sor ditzakeen ondorio negatiboak prebenitzeko, murrizteko edo arintzeko neurrien kostuaren zenbatespen eta/edo aurrekontu banakatua, plan partzialaren ondoriozko ingurumen kostuak barneratzen direla bermatzeko. Era berean, neurri horien finantzaketa iturriak ere jasoko dira, zeinak Amezketako udal aurrekontuen kontura hartuko baitira eta, kasuak hala eskatzen duenean, bereizi egingo dira hirigintza proiektuen edo jardueren sustatzaileek beren gain hartu behar dituztenak.

## **INGURUMEN EBALUAZIORAKO ETA GAINBEGIRATZE PROGRAMARAKO KONTUAN HARTU BEHARREKO ADIERAZLE KUANTITATIBOEN ETA/EDO KUALITATIBOEN PROPOSAMENA**

Aukeren ingurumen ebaluaziorako eta ingurumena zaintzeko programarako hautatutako adierazleak aldagaien konbinazio bat izango dira, alde batetik, plan partzialak finkatzen dituen ingurumen helburuak betetzen direla egiaztatzeko, eta, bestetik, plan partzialak garatu bitartean izango dituen ingurumen inpaktuen aurreikuspenak betetzen direla ziurtatzeko; hori horrela, neurri zuzentzaile gehigarriak sartu ahal izango dira, ingurumen helburuekin alderatuta ez-betetzeak edo aldaketak gertatzen badira.

Ingurumen adierazleak:

- Ezarritako ingurumen helburu eta irizpideekin lotuta egon behar dute, benetan kudeaketa tresna gisa funtziona dezaten, plan partzialaren formulazioan eta aplikazioan esku hartzen duten eragileei erantzukizunak finkatzeko.
- Denbora serieetan neurtzeko eta aztertzeko modukoak izan behar dute. Denboran aldakortasuna islatu behar dute, joera negatiboak prebenitzeko edo zuzentzeko aukera emango duten moduan.



- Gutxi izan behar dira, inplikaturako eragile guztiek erraz ulertzeko modukoak. Horretarako, samurrak eta interpretatzen errazak izan behar dute.
- Eskuragarri egon behar dute, eta ez dute informazio iturri askoren beharrik izan behar horiek lortzeko.

Plan partzialean diseinatutako proposamena kontuan hartuta, adierazle erabilgarri batzuk izan daitezke, esaterako, eremuan artifizializatutako azaleraren ehunekoa eta intereseko landaredia kaltetua eta zaharberritua duen azalera baloratzea.

### **INFORMAZIO ETA KONTSULTA MODALITATEAK**

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. eta 22. artikuluetan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan ezarritakoa betez, Amezketako Udalak, plan partziala onesteko prozedura substantiboan aurreikusitako izapideen barruan, jarduketa hauek egingo ditu:

- a) Ukituriko administrazio publikoei eta herritar interesdunei kontsulta egitea, plan edo programaren eta ingurumen azterketa estrategikoaren aurretiazko bertsioari buruz.
- b) Plan edo programaren eta ingurumen azterketa estrategikoaren aurretiazko bertsioa jendaurrean jartzea, iragarkia aldizkari ofizialean argitaratzearen bidez. Gutxienez 45 egun izango dira aztertze eta oharrak egiteko.

Aurrekoaren ondorioetarako, ukituriko administrazio publikotzat eta publiko interesduntzat hartuko dira Ingurumen Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak irismen dokumentu hau idazteko kontsultatu dituen administrazio, erakunde eta pertsonak, bai eta Amezketako Udalak plana izapidetzeko prozesuan identifika ditzakeen erakunde eta interesdun gehigarriak ere (ukituriko lurren jabeak, auzo elkarteak, eta abar).

### **INGURUMEN ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN ETA JENDAURREKO INFORMAZIO ALDIAREN ONDOREN PLANEAN EGIN DAITEZKEEN ALDAKETEN ESKAERA**

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoa aplikatuz, Amezketako Udalak ingurumen adierazpen estrategikoa egiteko eskatuko dio Ingurumen Administrazioako Zuzendaritza Nagusi honi, plana edo programa behin betiko onetsi aurretik. Eskabide horrekin batera, ingurumen ebaluazio estrategikoaren espediente osoa aurkeztu beharko da, agiri hauek barne:

- Plan partzialaren hirigintza dokumentuak.
- Ingurumen azterketa estrategikoa.
- Inpaktu akustikoaren azterketa.
- Dagokion araudi sektorialaren arabera nahitaezkoak diren txostenen kopia, eta kontsulten eta informazio publikoaren izapideetan egindako alegazioak.
- Laburpen dokumentu batean, Amezketako Udalak deskribatuko du zer-nola txertatu diren plan partzialaren azken proposamenean ingurumen alderdiak, bai eta ingurumen azterketa estrategikoarenak ere; era berean, jasoko du zer-nola egokitzen diren irismen dokumentura, zein diren egindako kontsulten emaitzak, eta kontsulta horiek nola hartu diren kontuan.

Plana izapidetzen den bitartean eta kontsulten eta jendaurreko informazioaren izapidearen ondoren, kontuan hartu beharko da ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen eta ebaluatu ez diren aldaketak egitea erabakitzen bada, eta, kasu guztietan ere, 21/2013 Legearen 72. artikuluko kasuren batean badaude, Amezketako Udalak jakinaren gainean ipini





beharko duela zuzendaritza hau, eta behar den dokumentazioa bidali beharko du, aldatutako planaren edo programaren alderdiak ebaluatzeko.

Donostia,

**INGURUMEN ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA**

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

Documento de alcance del PP AIU 7 Jauregi (Amezketa)